



LABek salatu ditu Glovoren erabateko inpunitatea eta erakundeen utzikeria, enpresa horren aurkako Gizarte Segurantzaren epaiketa hasi den egunean

Gaur goizean, Iruñeko Justizia Jauregian hasi da Glovoren aurkako Gizarte Segurantzaren epaiketa, denbora luzez itxaroten egondakoa. 2019an autonomo faltsu gisa zeuden langileen kotizazioak ordaintzeko eskatzen zaio enpresa Glovori. Epaitegiaren aitzinean eginiko elkarretaratze baten bidez, epaiketan parte hartzen duen LAB sindikatuak salatu du Glovok erabateko zigorgabetasuna izaten jarraitzen duela; izan ere, bere aurkako epai ugari egon arren, langileak autonomo gisa kotizatzerara behartzen ditu, banaketak lortu nahi badituzte.

2018aren amaieran, Glovo bere motxila horiekin iritsi zen Iruñeko kaleetan ibiltzera. Banaketa-enpresa zen, lan-formula berriak eta kontratazio-formula berriak erabiltzen zituen: erabateko prekaritatea. Dagoeneko 2019an, LABek lehenbiziko demanda jarri zuen Glovoren aurka, eta enpresa horretako banatzaileei kontratuak egiteko eskatu zuen. Lan Ikuskaritzak, zegokion ikerketa egin ondoren, alta eman zien Gizarte Segurantzari. 2020ko abenduan iritsi zen Gizarte Segurantzak Glovoren aurka Iruñean jarritako demandaren zitazioa: 80 langileri deitu zitzaizkien gaur, urte eta erdi geroago, hasi den epaiketara.

Ordutik, hainbat autonomia-erkidegotan emandako epaiez gain, Espainiako Auzitegi Gorenarena barne, eta duela urtebete onartutako Rider Legeak emandako epaiez gain (*rider*-ak ez direla autonomoak onartzen da), Glovok zigorgabe jarraitzen du, langileak kontraturik gabe edukiz eta langile autonomo gisa kotizatzerara behartuz, banaketak lortu nahi badituzte.

Gaur hasi den epaiketan ez du ustekaberik espero LABek. Epaiak sindikatu honek beti defendatu izan duen teoriari jarraituko dio: Glovoko langileak kontratatu egin behar dira, Gizarte Segurantzari kotizatu eta haien baldintzak arautuko dituen hitzarmen baten bidez arautu.

Ez dago eskubiderik lau urtez langileak jasaten ari diren egoera dramatiko honetarako. Izan ere, enpresa honetan lan egiten duten egun bakoitzean pairatzen duten prekaritatea txikia ez balitz bezala (soldata zehatzik gabe, lanaldirik eta ordutegirik gabe, oporrik gabe; azken finean, eskubiderik gabe), enpresa uztea erabakitzen dutenean beste agonia bat hasten zaie. Ezin dituzte autonomoen kuotak eta ordaindutako BEZa erreklamatu epai irmo bat egon arte. Ezin dituzte langabeziaren prestazioak jaso enpresak ez dielako baja ematen Gizarte Segurantzari (nahiz eta kotizazioak ordaintzen ez dituen). Ezin dute gursaotasun-prestazioa jaso enpresak ez dielako enpresa-ziurtagiria bidaltzen.

LAB sindikatuari erabateko eskandalua iruditzen zaio enpresa honek duen inpunitatea. Lau urtean legeari iskin egin dio —eta ez dakigu noiz bukatuko den kontu hau— eta hemen ez da ezer

gertatzen. Ez instituzioek ez gobernuek ez diote eskatzen legea betetzeko edo zigortzen, gainontzeko herritarrei eskatzen dieten bezala.

Horregatik, LAB sindikatuak, gaurko epaiketa honetan langileak defendatzeaz gain eta lan-baldintzak duintzeko borrokan jarraitzeaz gain, kalean zein epaitegietan langile hauen eskubideak behingoz aitortzea eskatzen jarraituko du.

Iruña, 2022ko irailaren 1a